

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Jasone Agirre Garitaonandia, EH Bildu Taldeko legebiltzarkideak eta bozeramaile-ordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo **Legez Besteko Proposamena** aurkezten du, **osoko bilkuran** eztabaidatua izan dadin, **“Picassoren “Guernica” margolana Gernikara ekartzeko eskakizunari buruz”**.

ZIOA:

Pablo Picassoren “Guernica” margolana mundu guztian ezaguna da gerra eta giza eskubideen zapalkuntza ozenki salatzen dituelako.

Artelan horrek ez du zentzurik Gernikako herriari eta bere historiari lotuta ez badago. Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du “Guernica” Gernikan bertan egon beharko litzatekeela.

Madrilgo Gobernuak, oster, ezetz esan izan du garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aitzakizat ipinita. Gaur egun, ordea, euskal erakundeek beharrezko baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute eta hortaz, interes politiko eta ekonomikoak baino ez daude Madrileko Gobernuaren ezetzaren atzean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historikoa eraikitzea ezinbestekoa den honetan, margolan honen indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egingo da Gernika herrian badago bonbardaketaren 80. urteurren honetan.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:

Legebiltzarrak eskatzen dio Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministeritzari “Guernica” Gernikara ekartzeko. Eusko Jaurlaritzari, berriz, dei egiten dio beharrezkoak diren urrats instituzional guztiak eman ditzala, eta lagun dezala margolana Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan.

Legebiltzarrak bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenena.

Gasteizen, 2017ko martxoren 10ean

Jasone Agirre Garitaonandia

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ITZULPEN ZERBITZUA

SERVICIO DE TRADUCCIONES

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

2844

Jasone Agirre Garitaonandia, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente **proposición no de ley**, para su debate en pleno, sobre petición de traslado del cuadro "Guernica" de Picasso a Gernika.

Justificación

El cuadro "Guernica" de Picasso es conocido en el mundo entero porque denuncia de viva voz la guerra y la represión de los derechos humanos.

Esa obra de arte no tiene sentido si no está vinculada al pueblo de Gernika y a su historia. Euskal Herria ha reivindicado más de una vez que el "Guernica" debería estar precisamente en Gernika.

El Gobierno de Madrid, en cambio, se ha negado a ello poniendo como excusa razones técnicas de transporte y mantenimiento. Hoy en día, sin embargo, las instituciones vascas no tienen problemas para cumplir todas las condiciones necesarias y, por lo tanto, tras la negativa del Gobierno de Madrid no hay sino intereses políticos y económicos.

En este momento en que es imprescindible construir la memoria histórica que reconozca todos los sufrimientos, la fuerza de este cuadro y la profundidad de la denuncia se multiplicarán si está en el pueblo de Gernika en este 80º aniversario del bombardeo.

PROPOSICIÓN NO DE LEY:

El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España y al Ministerio de Cultura que traigan el "Guernica" a Gernika. Al Gobierno Vasco, por su parte, le solicita que dé todos los pasos institucionales que sean necesarios, y que colabore en los trabajos de infraestructura y adaptación que sean necesarios para que se coloque el cuadro en Gernika.

El Parlamento hace suya la denuncia que Picasso quiso difundir con su cuadro en el mundo entero, la más clamorosa denuncia de la represión contra los pueblos y los derechos humanos, la guerra y el genocidio.

Vitoria, 10 de marzo de 2017

Jasone Agirre Garitaonandia

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

